

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

#### **Tokiko Gobernu Batzarraren 2016ko uztailaren 22ko erabakia, oporraldian Tokiko Gobernu Batzarreko kideen zereginak eskuordetzeari buruzkoa**

Aurtengo maiatzaren 24ko erabaki baten bitartez, bere eskumen zenbait kide anitzeko organo horretako kide diren zinegotziei eskuordetzea erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen — Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua— 127. artikuluan ezarritakoaren ildotik.

Ikusirik oporraldian uste izatekoa dela Tokiko Gobernu Batzarreko zenbait kide absente izango direla.

Alkate lehendakariak, udal-administrazioaren funtzionamenduaren jarraitutasuna behar bezala bermatze aldera, erabaki-proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena:

Oporraldian, aldez aurretik eskuordetu zitzaizkielako legez Tokiko Gobernu Batzarrari dagozkion zereginak egiten dituzten kide anitzeko organo horretako kideak absente badira, zeregin horiek alkateari edo alkateordeari eskuordetzea, funtzioetan jardun dezaten.

Azken xedapena: Dataren egunean jarriko da indarrean erabaki hau, ALHAOn zein egunetan argitaratzen den gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko uztailaren 22an

*Alkatea*

**GORKA URTARAN AGIRRE**